

## Garean Lizarrako festetan

Aurten, Garean elkarteak, Lizarrako festak euskaraz girotu asmoz hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Batetik, egunero 20.30etan *Jaiak* antolatuko dugu. Bestetik, egunero ere, 22.00etan *Afariankantzuz* prestatuko dugu. Eta larunbatean eguerdiko hamabietan *Lizarran Kantuz*.

Oroitzapen ederra utzi zigun pasa den urtekoak, giro ederra sortu baitzen. Jende asko bildu zen eta momentu zoragarria pasatu genuen elkarrekin euskaraz abesten eta dantzatzan. Ea aurten ere errepikatzen den, Larunbateko eguerdian izanen da.

Garean egitarau osoa barruan (6. orr.)



## Euskaraz jai!

Lizartarrei eta bisitari guztiei eskainia, aurtengo jaietako egitaraua. Erraldoiak eta buruhandiak, rok kontzertuak, entzierroak, jatorduak, peñak, txabiskeak... denetik duzue. Orduz ordu eta ezordutan ere bai, euskaraz jai.

## Abuztuaren 1a, ortzirala

**HAMABI ORDUETAN** Udaletxeko Balkoitik, **SUZIRIA** jaurtikiko da; Larraiza eta Ibai-Ega taldeetako dantzariak Larrain Dantzaren Jota Zaharra dantzatuko dute, eta Musika Banda, Txistulariak, Gaiteroak, errondailak, akordeoilariak, dantzari ohiak, kalejira alaitsuak jotzen eta dantzatzan ibiliko dira kaleetan zehar.

**12:15etan** Foruen Plazan haurrendako "Japoniar Lehergailu" sorta.

**12:30etan** Los Llanos-ko zubian, "CUCANA".

**13:00etan** **Foruen Plazan, dantzari ohiak omenaldia Baigorriko gaiteroei Larrain-dantza.**

**13:00etan** San Martin Plazan, VOCES NAVARRAS jota taldearen ekitaldia,

**16:30etan** **Ospitale Zaharretik, ERRALDOI ETA BURU HANDIEN KONPARTSAREN irteera.**

**17:45etan** Udal Gorenaren irteera bere segizio ofizialaz lagundurik.

**18:15etan** Puy Birjinaren Basilikan BEZPERA NAGUSIAK.

Haurrendako "Japoniar Lehergailu" sorta Puy-ko zelaian. Jarraian ohiko PUY-tik JAITSIERA.

**18:30etan** Foruen Plazan, zirko-ikuskitzuna AZKONA taldearekin.

**20:15-21:45** Foruen Plazan, dantzaldia FANTASY orkestrarekin.

**20:30etan** BEHI IGOERA entzierroaren bidean zehar.

**21:00etan** San Andres eta La Bota peñen irteera Udaletxetik.

**22:00etan** Foruen Plazan, zezensuzkoaren lasterketa.

**22:00etan** **Santiago Enparantzan, AFARIANKANTUZ Garean-en eskutik.**

**23:00etan** **Santiago Plazan, dantzaldia MODESTO gizon orkestrarekin.**

**23:00etan** Txosnetan, rock kontzertua, ESKUPITAJO PUNK, LILIT eta THC taldeekin.

**24:00-1:00** eta **1:45-3:45** Foruen Plazan, dantzaldia FANTASY orkestrarekin.

**01:00etan** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Udal Gaiteroekin. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.**

## Abuztuaren 2a, larunbata

- 8:00etan** Dianak eta Alboradak Musika Banda eta Gaiteroekin.  
**8:00etan** BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8:15-9:00** **Lizarrako Ikastolaren Barrakan SALDA.**  
**9:00etan** BEHI ENTZIERRUA; Zezen Plazan, betizuak.



- 9:30etan** Remontival pilotalekuan, Eskuz Binakako II Pilota Txapelketaren Finalak.  
**10:30etan** Lizarrako Udalbatzaren irteera.  
**11:00etan** Puy Birjinaren Basilikan, MEZA NAGUSIA. Jarraian "Japoniar Lehergailu" jaurtiketa. Segidan, NESKEK PUY-tik JAITSIERA.  
**12:00etan** **LIZARRAN KANTUZ, Baxenafarra kaletik hasita, Garean-en eskutik.**  
**13:00etan** Los Llanos Ibiltokian, "MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK" txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.  
**17:15etan** Lizarrako Udalbatzaren irteera.  
**17:30etan** San Pedro de la Rúa Elizan, BEZPERA NAGUSIAK.  
**18:30etan** Zezen Plazan, ZEZENKETA HANDIA FRANCISCO RIVERA ORDOÑEZ - JUAN BAUTISTA - EL FANDI Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19:00etan** San Martin plazan, kale-antzerkia ADARDUNAK taldearekin.  
**19:30-21:00** Foruen Plazan, musika MARIACHI CIUDAD DE MEXICO taldearekin.  
**20:30etan** **Santiago plazan, JAIALAI LAIA LASTERKETA, Garean-en eskutik.**  
**21:00-22:00** **Foruen Plazan, dantzak Udal Gaita Akademiako Gaiteroekin eta "Aita Hilario Olazaran" Txistulariekin.**  
**22:00etan** **Santiago plazan AFARIAN KANTUZ, Garean-en eskutik.**  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23:00etan** **Santiago Plazan, dantzaldia BIDE BATEZ taldearekin.**  
**23:00etan** **Txosnetan, rock kontzertua, FANTASY PLANET, INTERLUDE eta HESIAN taldearekin.**  
**24:00-1:00 eta 1:45-4:45** Foruen Plazan, dantzaldia CHASIS taldearekin.  
**1:00etan** **Foruen Plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Udalaren Gaiteroen eskutik. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.**

## Abuztuaren 3a, igandea

- 8:00etan** Dianak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8:15-9:00** **Lizarrako Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9:00etan** BEHI ENTZIERRUA; Zezen Plazan, betizuak.  
**10:30etan** Lizarrako Udal Korporazioaren irteera.  
**11:00etan** San Pedro de la Rúa Elizan, MEZA NAGUSIA.  
**11:30etan** Los Llanos Ibiltokian, "MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK" txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.  
**12:00etan** PROZESIO HANDIA San Pedro de La Rúa Elizatik. Jarraian LA PAÑUELADA (herri ekimena).  
**18:30etan** Zezen Plazan, ZEZENKETA HANDIA FRANCISCO MARCO - CESAR JIMENEZ - SALVADOR CORTES Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19:00etan** Santiago Plazan,BAJO LA ARENA kale animazio-taldearen emanaldia.  
**20:30etan** **Santiago plazan, JAIALAI JAUZI DANTZAK, Garean-en eskutik.**  
**19:30-21:00** Foruen Plazan, dantzaldia KELTIAR ALDEA zelta musika taldearekin.  
**21:00-22:00** **Foruen Plazan, dantzak Iturrieta eta "Aita Hilario Olazaran" taldeko txistulariekin.**



- 22:00etan** **Santiago Plazan, AFARIAN KANTUZ, Garean-en eskutik.**  
**22:00etan** Foruen Plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23:00etan** **Santiago Plazan, dantzaldia GAUBELA taldearekin.**  
**24:00-1:00 eta 1:30-3:30** Foruen Plazan, country musika emanaldia COUNTRY REVIVAL taldearekin.  
**01:00etan** **Foruen Plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Udal Gaita Akademiako Gaiteroekin.**



## Abuztuaren 4a, astelehena

- 8:00etan** Dianak eta Alboradak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8:15-9:00** **Lizarrak Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9:00etan** BEHI ENTZIERROTXOA; Zezen Plazan, betizuak.  
**10:00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**11:00etan** **ERRALDOI ETA BURU HAUNDI KONPARTSAREN irteera, Udaletxetik. Ondoren "Japoniar Lehergailu"-en jaurtiketara Foruen Plazan.**  
**11:00etan** HAMAIKETAKOIA San Martin Plazan, ardoa eta garagardoa Udalaren opari. Jarraian "BOMBADA" hiriko kaleetan zehar.  
**11:00etan** San Juan Elizan Meza, Foruen Plazan "UDALAREN OMENALDIA NAGUSIEI" eta "VOCES NAVARRAS" Folklore-Taldearen emanaldia.  
**12:30etan** **Los Llanos Ibiltokian, KONTZERTUA**  
 Lizarrako Musika Bandaren eskutik.  
 Atsedendian Iturrieta Gaiteroen ekitaldia.  
**13:00etan** **"Aita Hilario Olazarán" txistulari taldearen kalejira.**  
**13:00etan** Los Llanos Ibiltokian, "MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK" txotxongilo antzerkiaren ekitaldi berria.  
**17:00etan** San Migeleko zelaian, "Japoniar Lehergailu"-en jaurtiketara.  
**17:30etan** San Miguel Auzoko Pilotalekuan, haur Jolasak, "Como Quieras" taldearen eskutik.  
**18:30etan** Zezen plazan, BURTZIKADA ARTEAREN ZEZENKETA FERMIN BOHORQUEZ - PABLO HERMOSO DE MENDOZA - LEONARDO HERNANDEZ-en semea Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19:00etan** San Martin Plazan, "Gorriti".  
**19:30-21:00** Foruen Plazan, boleroak eta habanerak CARABELA taldearekin.  
**20:30etan** **Santiago Plazan, JAIALAI: KARBA JOKOA, Garean-en eskutik.**  
**21:00-22:00** **Foruen Plazan, bertako musika Udal Gaiteroen eskutik eta "Aita Hilario Olazarán"-en txistulariekin.**  
**22:00etan** **Santiago Plazan, AFARIANKANTUZ, Garean-en eskutik.**  
**22:00etan** Foruen Plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**23:00etan** **Santiago Plazan, dantzaldia MODESTO gizon orkestrarekin.**  
**23:00etan** **"La Bota" Peñaren goitzaren inguruan, rock kontzertua ZAPLASTAKO, ESKUPITAJO PUNK eta ULTIMOS REYES taldeekin.**  
**24:00-1:00** **eta 1:30-3:30** Foruen Plazan, dantzaldia CRISTAL 975 orkestrarekin.  
**1:00etan** **Foruen Plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Udal Gaita Akademiako Gaiteroen ekitaldia.**

## Abuztuaren 5a, asteartea

- 8:00etan** Dianak eta Alboradak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8:15-9:00** **Lizarrak Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9:00etan** BEHI ENTZIERROTXOA; Zezen Plazan, betizuak.  
**10:00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**11:00etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera, Udaletxetik.**  
**11:30etan** Haur Korporazioaren harrera Udaletxean.  
**12:00etan** SUZIRIAK. Ondoren, San Pedro de La Rúa elizan, Haur Korporazioa. Jarraian, "HAUR PAÑUELADA" eta itzulera.  
**12:30etan** **Los Llanos Ibiltokian, musika banda KONTZERTUA. Atsedendian ekitaldia Udalaren gaiteroen eskutik.**
- 
- 13:00etan** **"Aita Hilario Olazarán" txistulari taldearen kalejira.**  
**13:00etan** Los Llanos pasealekuan, "MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK" txotxongilo antzerkiaren azken emanaldia.  
**15:30-19:30** **Los Llanos Pasealekuan, zineen aurrean, HAURREN DAKO JOLASPARKE HANDIA.**  
**17:30etan** **"Remontival" Pilotalekuan pilota partida profesionalak.**  
**18:30etan** Zezen Plazan, JAI MISTOA, PIKADORERIK GABE MANUEL MANZANARES, ADRIAN DE TORRES, ALBERTO MARTIN. Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19:30-21:00** Foruen Plazan, haurrendako ikuskizuna LAS MEGANENAS taldearekin.  
**20:30etan** **Santiago Plazan, JAIALAI: ARRAUTZA JOLASA, Garean-en eskutik.**  
**21:00-22:00** **Foruen Plazan, musika Ruiz-Etxeberria Gaiteroekin eta "Aita Hilario Olazarán"-en txistulariak.**  
**22:00etan** **Santiago Plazan, AFARIANKANTUZ, Garean-en eskutik.**  
**22:00etan** Foruen Plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Ondoren, HAURREN DAKO CHE-ra JAITSIERA La Bota peñarekin.  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Valentziako Caballer su-etxearen eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23:00etan** **Santiago Plazan, dantzaldia DRINDOTS taldearekin.**  
**24:00-1:00** **eta 1:30-3:30** Foruen Plazan, dantzaldia MAGNETICA orkestrarekin.  
**1:00etan** **Foruen Plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Udal Gaita Akademiako Gaiteroen eskutik.**

LIBURUDENDA  
**INO**  
 PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2  
 Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA

KATXETAS  
 Taberna

Estudio de Gramática, 2  
 31200 Lizarrak - Nafarroa

Tel. 948 550 010





## Abuztuaren 6a, asteazkena

- 8:00etan** Dianak eta Alboradak eta BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**8:15-9:00** **Lizarrak Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9:00etan** BEHI ENTZIERRUA; Zezen Plazan, betizuak.  
**10:00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako),  
 "Como Quieras" taldearekin.  
**10:30etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera Udaletxetik.**  
 Ondoren, "Japoniar Lehergailu"-en jaurtiketa Foruen Plazan.



- 11:00etan** San Juan Bautista Elizan, jubilatuek Meza.  
 Segidan, Foruen Plazan OMENALDIA NAGUSIEI.  
 Guzti honen ondoren LA RIBERA CANTA-ren emanaldia.  
**11:30etan** San Migel Auzoko pilotalekuan, "Aparren Jaia".  
**12:00etan** Foruen plazan HERRI KIROLAK, La Botaren eskutik.  
**12:30etan** Los Llanos pasealekuan, Kontzertua Lizarrako  
 Musika Bandaren eskutik.  
 Atsedenaldiran Ruiz-Etxeberria Gaiteroen ekitaldia.  
**13:00etan** **"Los Estellicas" errondailaren eta "Aita Hilario Olazaran" txistulari taldearen kalejira.**  
**13:30etan** Udaletxean, harrera ofiziala Estellerriko alkateei.  
**18:30etan** Zezen Plazan, HERRI ZEKORKETA  
 Agustin Hipolito "Facultades" - Manolo Romeo -  
 Eduardo Solano - Rodrigo Cleber  
**20:30etan** BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**20:30etan** **Santiago Plazan, JIALALI: SOKATIRA, Garean-en eskutik.**  
**21:00etan** BEHI ENTZIERRUA.  
**19:30-21:00** Foruen Plazan, dantzaldia CARPE DIEM orkestrarekin.  
**20:00etan** San Martin Plazan, haur-jolasak "Como Quieras" taldearekin.  
**21:00-22:00** **Foruen Plazan, musika Udal Gaita Akademiako Gaiteroekin eta "Aita Hilario Olazaran"-en txistulariak.**  
**22:00etan** Foruen Plazan, zezensuzkoaren lasterketa.  
 Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Valentziako Caballer su-etxearen eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23:00etan** **Santiago Plazan, dantzaldia HAITZAMA taldearekin.**  
**24:00-1:00** **eta 1:30-3:30** Foruen Plazan, dantzaldia CARPE DIEM orkestrarekin.  
**1:00ean** **Foruen Plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a "Ruiz-Echeverria" gaiteroen eskutik.**

## Abuztuaren 7a, ortzeguna

- 8:00etan** Dianak eta Alboradak eta BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**9:00etan** BEHI ENTZIERRUA; Zezen Plazan, betizuak.  
**10:00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako),  
 "Como Quieras" taldearekin.



- 11:00etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera, Udaletxetik.**  
**11:15etan** Urederra Ibaia Plazan, "Japoniar Lehergailu"-en jaurtiketa.  
**11:30etan** Santiago Plazan, XXXVIII AJOARRIERO LEHIAKETA.  
**13:30etan** XXXVII Ajoarriero Lehiaketaren lapiko hertsatzea.  
**17:30etan** BEHI ENTZIERROTIXOA.  
**18:00etan** BEHI ENTZIERRUA zezen plazaraino.



- 19:00etan** San Migel Auzoko pilotalekuan, haurrendako ikuskizuna KUKO, TRUKO eta BOLENWAIDER taldearekin.  
**18:00etan** BEHI ENTZIERRUA Zezen Plazaraino.  
**19:30-21:00** Foruen Plazan, herri-dantzaldia ZARABANDA orkestrarekin.  
**20:00etan** Santiago Plazan, XXXVIII AJOARRIERO LEHIAKETAren emaitza eta jarraian afari-askaria.  
**21:00-22:00** **Gaita Musika Iturrieta Gaiteroen eskutik.**  
**22:00etan** Foruen Plazan, zezensuzkoaren lasterketa.  
**24:00-1:00 eta 1:30-3:30** Foruen Plazan, herri-dantzaldia ZARABANDA orkestrarekin.  
**1:00ean** **Foruen Plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a "Ruiz-Echeverria" gaiteroekin.**

## Lizarrako txosnak



### Ortzeguna 3 I

- 23.00 txupinazoa + ekitaldia
- 24.00 gaueko kontzertua
  - ZAPLASTAKO
  - HABEAS KORPUS

### Ortzirala I

- 14:00 bazkari herrikoia
- 19:00 kalejira Lizarrako eta Altsasuko batukadekin
- 24.00 gaueko kontzertua
  - ESKUPITAJO PUNK
  - LILIT
  - THC

### Larunbata 2

- 24.00 gaueko kontzertua
  - FANTASY PLANET
  - INTERLUDE
  - HESIAN

## Ikastolaren barraka



Lizarra Ikastolak herriko jaietarako hainbat ekitaldi antolatatu du Santiago plazan (10.30etatik aurrera), jaietako euskal giroko gunea eskaini nahian:

### Aurtengo kontzertuak:

- |                |            |
|----------------|------------|
| • Ortzirala 1  | Modesto    |
| • Larunbata 2  | Bide Batez |
| • Igandea 3    | Gaubela    |
| • Astelehena 4 | Modesto    |
| • Asteartea 5  | Drindots   |
| • Asteazkena 6 | Haitzama   |

Bertzelde, ohiko SALDAren banaketa goizeko 08.00etatik 09.00arte.

## Iraganeko zapi gorriaren etorkizuna

### Maite

Murgiltzen naiz nire garai bateko kajoietan auskalo zeren bila. Oroitzapen edota argazki zaharren bila akaso.

Badakit betiko lekuetan begiratuz gero betiko gauzak aurkituko ditudala, baina aldi berean betiko gauza horien atzean beti ezkutatu egiten dira oroitzapen berriak, edo behintzat, horiek, berritu egiten dira.

Data seinalatuek guztiei dakarkigute gogora zerbait berezia. Nire kasuan, Lizarrako jaiak dute horren ardura eta gauza bitxi bezain harri-garria suertatzen zait abuztua hurbiltzen den heinean: oroitzapenak jaiak bihurtzen dira, jaiak oroitzapen bihurtzen diren bitartean.

Onartu behar dut betidanik gustatu izan zaidala atzera begiratzea. Gogoratzea nola orain nire alabatxoarekin erraldioen ondoan ibiltzen naizen bezala, nire aitaren eskuari ondo baino hobeto helduta nengibilen ni neu; gustukoa dut ikustea nola urteetan zehar kilikien keinua mantentzen den bitartean besteon aurpegiak ikara, "pasotismoa" edo emozioa islatzen dute urteak eta adinaren arabera; edota begiak itxia eta jaiaren soinuak entzunez, buruan ditudan irudiekin fundamendu-tuzko DVD bat irudikatzea.

Baina ez okertu. Gustura begiratzen diot iraganari, bai, beti ere oraina bizitzen ari naizela eta etorkizuna eraikitzeke dagoela ahaztu gabe.

Egia da jaiak, aipatu bezala, gogora ekartzen dizkidalako ahaztu nahi ez ditudan bizipen bereziak, eta jaien kontura loratu eta areagotu egiten zaizkit gainontzeko urteko egunetan zehar inguratzen gaituzten gaiak eta sentimenduak. Azken finean jaiak parentesi bat baino, bizitza beraren jarraipena baitira.

Oraingoan jaiak, iragana eta etorkizuna lotuta agertu zaizkit, agian gure herrian gertatu ohi den bezala, historiari garrantzi handia ematen baitiugu alde batetik, eta etorkizunari itxaropenez begiratu nahi diodalako bestetik.

Behar bada, jaiak bezala, gure herriak ere iragana duelako eta aitzinean ere bere historia idatziko duelako. Herriari inork idatzi behar ez dion historia.

Beraz gure betiko zapi gorri horri eutsiz, eta astinduz, etorkizuneko haizea sortuko dugu, gure bihotzeko eta iraganeko zapi gorri horiek bezala geuk ere etorkizuna dugulako. Izan ginelako. Izango garelako.

Gazte giroa Lizarrako alde zaharrean

# Bar Berri

Navarrería, 47 · Tel 948 54 66 46



Bokatak, hamaiketakoak eta afari goxoak

## Garean-jarduerak

### GAREANek Santiago plazan antolatutako festa ekitaldiak

Gareanek, Lizarra eta Estellerriko euskaldunen elkarteak, Santiago plaza euskaraz girotuko du aurtengo festetan. Egunez egun ongi pasatzeko ekitaldi sorta polita prestatu du: egunero 20.30etan *Jaijai* eta 22.00etan *Afariankantuz*; larunbatean, eguerdiko hamabietan, *Lizarran Kantuz*. Jarraian, banan-banan jarduera bakoitza zertan datzan azalduko dizuegu.

**Zer izanen da *Jaijai*?** Egunero zerbait desberdina antolatuko dugu: laia lasterketa, jauzi dantzak, karba jokoa, jolasak eta sokatira. Beti zortzi eta erdi-etan hasiko da eta Santiago plazan ospatuko dugu. Normalki jendeari parte hartzeko aukera eskainiko diogu, jendearen parte hartzeak izan behar baitu festaren muina.

**Lai lasterketa:** Garesko lairiak gonbidatu ditugu eta hango taldetxo bat etortzea espero dugu.

**Jauzi dantzak:** Gure gidaritzapean eta zuzeneko musikarekin jendeari dantzatzeko aukera emanen diogu. Errepertorio sinple bat dantzatuko dugu: Zazpi jauzi, Bolant dantza eta besteren bat. Dantza hauek ez dakizkienak ere ikasteko aukera izanen du.

**Karba jokoa:** Punteri joko bat da Deierriko Aritzalako festetan oraindik egiten dutena. Harri kozkor bat eskuetan hartu eta hamar bat metrotara dagoen zutikako harri luxe bat jotzea lortu behar da, airez, boterik gabe. Hori izaten da puntuaziorik hobereena. Inork ez badu Karba izeneko harri luxe hori botatzen, hurbilen gelditu den harri kozkorak puntuatzen du.

**Arrautzaren jolasa:** betiko jolasa. GAREANekoek arrautzak eramango ditugu baina jolasteko behar izango den koilara norberak ekarri beharko du.

**Sokatira:** hurbiltzen den jende guziak parte hartu ahal izango du eta, gainera, onartuko dira taldeen arteko erronka edo desafio inprobisatuak.

**Zer izanen da *Afariankantuz*?** Egunero, Santiago plazan jendea afaltzeko biltzen denean, kantu saio labur bat proposatuko dugu. Hamarrak aldera izango da, kantu papera banatuko dugu eta hiruzpalau kantu abestuko ditugu denon artean. Giro ederra sor daitekeela uste dugu.

**Lizarran Kantuz:** pasa den urtekoa oroitzapen ederra utzi zigun. Jende asko bildu zen eta momentu zoragarria pasatu genuen elkarrekin euskaraz abesten eta dantzatzen. Ea aurten ere errepikatzen den.



### Egitaraua

#### Ortzirala 1

22.00 **Afariankantuz**

#### Larunbata 2

12.00 **Lizarran Kantuz**  
(Baxenafarra kaletik hasita)

20.30 **Jaijai: Laia lasterketa**

22.00 **Afariankantuz**

#### Igandea 3

20.30 **Jaijai: Jauzi dantzak**

22.00 **Afariankantuz**

#### Astelehena 4

20.30 **Jaijai: Karba jokoa**

22.00 **Afariankantuz**

#### Asteartea 5

20.30 **Jaijai: Arrautzaren jolasa**

22.00 **Afariankantuz**

#### Asteazkena 6

20.30 **Jaijai: Sokatira**

22.00 **Afariankantuz**



## GAREAN AUKERATU!

**I4857** da GAREANen zenbakia

Nafarroako Kutxak (CAN) abian duen “**Zeuk aukeratzen duzu: zeuk erabakitzen duzu**” ekimenaren baitan. Mintzakide hitzaren bitartez ere bilatzen ahal duzu.

**EGIN EUSKARAREN ALDE!**





## Espartzin xurigorriak

■ Luisfer

URTE BAT JOAN DA eta ardo ona bagina bezala zahartu gara. Bitarte horretan eguzkia atera, euria bota eta ortzadarraren zubiko koloreek azalak eta barrenak tindatu dizkigute.

Gogoratzen dut **Txokolipuinak** martxan paratu genuen momentua: udazkena zen eta kolore gorrixten berotasuna sumatu genuen; ipuinak euskaraz entzuten hasi ginen txokolatea jaten genuen bitartean.

Ia denbora berean, **Larunblai** abiatu genuen larunbatero eta iruditzen zitzaigun zeruko hodeiak gorritu egiten zirela 14 gaztetxo Gaztediaren Etxean euskaraz ongi pasatzeko biltzen genituen arratsalde haietan.

Aurreraxego, negua heltzeaz zegoela, bisita sekretu batean **Gu ta gutarrak** Lizarrara etorri ziren: kolore xuribeltzeko iluntze zoragarria izan zen, euskalduna izatea suerte bat dela konturatzeko modukoa. Eurei gure esker ona eta gora Gu eta gutarrak!

Bedatseko kolore berdeak oraindik guztiz berdetu gabe ziren unean **Jon Arretxek** Burkina Faso ekarri zigun Julian Romano Musika Eskolako aretora eta denbora puxka batean Lizarra Afrikako mapan kokatu genuen oharkabea. Ai Jon, griot arlote halakoa!

Jada berdeak muxkerraren koloreak jantzi zituenean euskaldunak 64 izan ziren **Bob** nor zen jakiteko argigarri izan zen antzerkian. Hirurogeitalau bihotz euskararen olatu gaineko txaluparen barnean!

Urte koloretsua izan da aurtengoa, bidea ttipi-ttapa eta kantari bete duguna. Orain, festa bezpera honetan, abiapuntura bueltatzen ari garela sentipena daukat, esan dudan moduan, urte bat zaharrago eta eskarmentatuago. Orain, poliki-poliki eta solemnidadez gauza bat egingo dut: nire oinak, ezker eskuinak, espartzin xurigorriak jantzi eta festan zuekin bat egin.

Goza Lizarrako festak eta on egin diezagutela!



**I L A R G I**  
*Jai zoriontsuak*

■  
MAYOR 22  
NAGUSIA

■  
TFNO.: 948 553 421  
31200 LIZARRA/ESTELLA

BAR  
**OLARRY**

Félix Huarte plaza, 7  
31007 IRUÑA  
Tel. 948 264 576



**GARI eta SEI**

ANDER SOLANO



JAI ZORIONTSUAK...!!!



## Erraldoi eta buruhaundiak

### **ORTZIRALA, 1 Irteera 16:30etan**

Ospitale Zaharra, Izarra, Foruen Enparantza, Caldereria, Santiago Enparantza, Nagusia, Zapateria, Ruiz de Alda, Espoz y Mina, Ruiz de Alda, Zapateria, Udaletxea, Gaiteroen Karrika, Carpinteria, Gaiteroen Karrika eta Udaletxea.

### **LARUNBATA, 2 Irteera 10:30etan**

Udaletxea, Gaiteroen Karrika, Carpinteria, Izarra, Foruen Enparantza, Caldereria, Santiago Enparantza, Nagusia, Puy, Izarra, Carpinteria, Gaiteroen Karrika eta Udaletxea.

### **Irteera 17:15etan**

Udal Korporazioa lagunduko da San Pedro Elizako Bezperetara, Gaiteroen Karrika, Nagusia, Azucarero Zubia eta San Martin Enparantza kaleetan zehar. Elizkizunak bukatutakoan kale berberetan zehar itzuliko da Udaletxera.

### **IGANDEA, 3 Irteera 10:30etan**

Irteera Udaletxetik, Gaiteroen Karrika, Nagusia, Azucarero Zubia, San Martin Enparantza. Hemendik prozesioaren ibilbidea egiten da, gero aipatutako kale berberetan zehar itzultzeko.

### **ASTELEHENA, 4 Irteera 11:00etan**

Udaletxea, Gaiteroen Karrika, Nagusia, Santiago Enparantza, Entrañas Aldapa, Deierri Etorbidea, Uharte Donibanekoa Doktoea, Trenbideko Zubia, Arieta, San Jeronimo Egoitza, Merindad, Blanca Cañas, Merindad, María Azpilikueta, Tafalla, Andia, San Juan Zubia, Deierri Etorbidea, Zezen Plaza, Deierri Etorbidea, Sorkunde Garbiaren Pasealekua eta Udaletxea.

### **ASTEARTEA, 5 Irteera 11:00etan**

Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarrerria, Izarra, Foruen Enparantza, Nagusia, Gaiteroen Karrika eta Udaletxea. Jarraian Udal Korporazioa lagunduko da San Pedro de la Rua Elizaraino, eta ohizko kaleetan zehar itzuliko da Udaletxeraino. Ondoren, Sortzez Garbia, San Andres, San Beremundo, Bianako Printzea, Coronacion Enparantza, San Andres, Sorkunde Garbiaren Pasealekua eta Udaletxea.

### **ASTEAZKENA, 6 Irteera 11:00etan**

Udaletxea, Gaiteroen Karrika, Carpinteria, Izarra, Nabarrerria, Erraldoi eta Buruhaundiak, Puy, Nagusia, Zapateria, Antso Ramirez, Azucarero Zubia, San Martin Enparantza, Rua, Hilobi Santua, Rua, San Nicolas, Aben Seraq, Anai Diego Lizarrakoa, Llanos-etako Zubia, Antso Azkarra, Sorkunde Garbiaren Pasealekua, Behe Nafarroa, Foruen Enparantza, Comercio, Nagusia, Gaiteroen Karrika eta Udaletxea.

### **ORTZEGUNA, 7 Irteera 11:00etan**

Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarrerria, Erraldoi eta Buruhaundiak, Puy, Izarra, Foruen Enparantza, Caldereria, Santiago Enparantza, Nagusia, Behe Nafarroa, San Andres, Sorkunde Garbiaren Pasealekua, Gaiteroen Karrika, Nagusia, Behe Nafarroa, Foruen Enparantza, Izarra eta Ospitale Zaharra.



**kotarro**

5. zenbakia

Argitaratzen du:

**Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak**



Diseinua eta maketazioa:

Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007

Ale kopurua: 1000

**UDALBIDE**  
ELKARLAN = ELKARTEA

Navarro Villoslada, 1 - 4.E

31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.